



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA-OHARRA

## **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN OSOKO BILKUREAK ENERGIA-KRISIAREN ONDORIOAK ARINTZEKO HAINBAT NEURRI FISKAL ONARTU DITU**

- Bizkaiko parlamentuak zergen ordainketan, PFEZren ordainketa zatikatuaren salbuespenean, eta mikroenpresen eta behargin autonomoentzako gastuak konpentsetako forfait-a handitzean berme eta interes bako geroratzea onartu dau, batez be errepideko, nekazaritzako eta abeltzaintzako merkantzien garraioaren sektoreetarako.
- 2016an kendu zan familia ugarientzako OHZko hobaria berreskuratzeko prest agertu dira talde guztiak.
- Osoko batzarrak Batzar Nagusietako talde guztiek, Bizkaiko Talde Berezia-PP taldeak izan ezik, desbardintasunaren aldeko eta indarkeria matxista desagertuarazoteko politikak indartu daitezcan sinatu daben erdibideko zuzenketa-eskea onartu dau.

(Gernikan, 2022ko maiatzaren 18an). Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkurak energia-krisiaren ondoriozko preminazko hainbat zerga-neurri onartu ditu gaur, Gernikan egindako ohiko osoko batzarrean. Bizkaiko parlamentuak aldeko 36 botogaz eta 13 abstentzinogaz berretsi eban apirilaren 5eko 2/2022 Foru Dekretu Arauemoilearen bidez, gaur egungo energia-krisiaren ondorioak “arindu” gura ditu Aldundiak, hainbat zerga-neurriren bitartez.

Holan, irakurketa bakarraren bidez onartutako preminazko dekretuak, aurkezteko eta ordaintzeko epea 2022ko apirilaren 1etik garagarriaren 31ra bitartekoa daben zerga-zorren salbuespeneko atzerapena ezarri dau. Neurri horrek jarduera ekonomikoak dituen persona fisikoetan, mikroenpresetan eta enpresa txikietan eta kooperatiba batzuetan izango dau eragina. Artikulu honetan aitatzen diran zor geroratuen ordainketea hiru hilebetetz etengo da.

Modu berean, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzako diputatuak adierazo dauenez, Aldundiak Persona fisikoen errentaren ganeko zergen etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua erabiliz kalkuletako arau bereziak ezarriko ditu. Ehuneko orokorra % 10etik % 15era igongo da, eta % 70eraino nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta merkantzien errepideko garraiorako.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Dekretuak ezarten dabenez, beste artikulu batzuetan, alde batetik, jarduera ekonomikoak egiten dituen zergadunek ez ditue PFEZaren 2022ko lehen eta bigarren hiruhilekoei jagokezan ordainketa zatikatuak autolikidau eta Bizkaiko Foru Ogasunean sartu beharko. Eta mikroenpresek euren zerga-oinarri positiboaren % 15 -5 puntu gehiago- gastu kengarri lez hartu ahal izango dabe, zerga-konpentsazio lez.

Neurri horreei jagokenez, talde batzuk salatu dabe Aldundia “eskas” geratzen dala, momentuaren larritasuna kontuan izanda. Horixe da, hain zuzen be, Talde Berezia-PP Bizkaia taldearen kasua; izan be, neurri “sendoagoak” eskatu ditu, arazoak oso handiak dirala kontuan hartuta. Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldeko bozeroaleak azaldu dauenez, “neurriak ez dagoz herritarrak jasaten ari diran ondorioen mailan” eta neurriak “herritar batzuentzat bakarrik ari dirala hartzen” salatu dau. EH Bilduren eretziz, onartutako neurriak “beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoak”. “Epe laburrera begiratzen daben neurriak dira, baina krisi honek egiturazko arazoei aurre egingo deuten sakoneko neurriak” behar ditu, Arantza Urkaregik adierazo dauenez. Urkaregik dekretua foru arau moduan izapidetzea planteau dau, zerga arloko hobekuntzak sartzeko, baina osoko batzarrak baztertu egin dau hori beste bozketa batean.

Beste puntan egon dira Foru Gobernua babesten daben taldeak. José Alberto Álvarez Castrejón Euskal Sozialistak taldeko batzarkideak onartu dauenez, beti “egin daike gehiago”, baina proponidutako neurriak “laguntza-dosi txikiak dirala” esan dau, eta zergadun autonomoei eta ETEei estutasun ekonomikoren batetik “urtetan” laguntzen deusela. Ildo horretan, Oscar Arana jeltzaleak “une bakotxerako” neurriak dirala nabarmendu dau, “krisi ekonomikoaren bilakaeraren arabera”.

## % 90ERA ARTEKO HOBARIAK OHZ-N FAMILIA UGARIENTZAT

Osoko Batzarrak atzera bota dau familia ugariei OHZ ordaintzeko orduan emoten jakezan hobariak berreskuratzeko Talde Berezia-PP Bizkaia aurkeztu dauen Arauzko proposamena. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua onartu ostean hobariak kendu egin ziran, baina Araban eta Gipuzkoan indarrean jarraitzen dabe. Ekimen horren bidez, Foru Gobernua eusten daben taldeek “justifikazio barik emoten daben tratu txarra” zuzendu gura da, Bizkaian dagozan “15.165” familia ugariei % 90era arteko hobaria emonez.

Ekimenak ez dau aurrera egin, kontrako 32 boto (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak), aldeko 10 (EH Bildu eta Talde Berezia-PP) eta 6 abstentzino (Elkarrekin Bizkaia) izan ditualako. Eztabaidak orain dala sei urte entzundako errazoiak errepikatu ditu. Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu hobarien alde agertu dira, baina familiaren errentea eta familia mota desbardinak kontuan hartuta. Ez datoz bat aplikazio “orokorra” izateagaz.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Popularren ekimenaren kontra egon arren, Foru Gobernua babesten daben taldeek bide “laburragoa” proponidu dabe hobari hori berreskuratzeke. Juan Otermin bozeroale sozialistak eta Unai Lerma jeltzaleak iragarri dabenez, zerga-neurri barriak onartu ostean Aldundiak aukerea edegi eban atzo. Bertan, egungo foru-arauaren 10. artikulua aldaketea jasoten da, popularrek proponidutako ehunekora iritsiko litzateken hobariagaz, baina epeak laburtuz, udalek ekitaldia amaitu aurretik prest izan daien. “Urrirako seguru helduko garala” esan dau Lermak, Batzar Nagusietan adostutako eta onartutako tresna hori udalek erabilgarri izatearen gainean oposizino taldeek zalantzak erakutsi dituen arren.

#### ONARTU EZ DIRAN MOZINOAK: KLAUSULA SOZIALAK, GITXIENKO KARGEA SOZIEDAEETAN, ETA KRISIAREN ETA KLIMA-ALDAKETAREN KONTRAKO NEURRIAK

Ostean, beste horrenbeste itaunetik eratorritako oposizinoaren lau mozino eztabaidatu dira. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek atzera bota ditue.

Batzar Nagusietako Elkarrekin Bizkaia taldeak, EH Bilduren babesagaz, boluntariotza irabazi-asmoagaz erabilten daben erakundeakaz Aldundiak dituan kontratuak “apurtzea”, Laneko Segurtasun eta Osasun Estrategia propioa garatzea eta klausula sozialen eta ingurumeneko eneredua lankidetzaz hitzarmenara eta diru-laguntzetara egokitzea proponidu dau.

Foru Gobernua babesten daben taldeek errepikau dabenez, Aldundia “daborduko gauzatzen ari da” planteetan ari dana. Klausula sozialak beteten dirala kontrolatuko mekanismoak ditu, lehiaketa bakotzeko klausula administratibo en pleguetan laburbilduta. Mekanismo horreek laneko eskubideak edo beharginen ordainsariak hitzarmenaren arabera beteten behartzen ditue kontratuen esleipendunak. Juan Otermin sozialisten bozeroaleak gogorarazo dauenez, jeltzaleen eta sozialisten ezezkoa Aldundiak klausula horreen jarraipen “bikotxa” ezarten dauela da, foru departamentu bakotzak eta Kontratazino Zerbitzuak, hain zuzen be.

Modu berean, Bizkaiko parlamentuak atzera bota dau Aldundiari Soziedadeen ganeko Zergan ordaindu beharreko gitxi eneko tasea barrikustea eskatzen eutsan EH Bilduren mozinoa, erreferentzia lez kontabilidate-emaitzea hartuta, eta ez zerga-oinarria, une honetan Bizkaian egiten dan moduan. Arantza Urkaregik lurraldean finkatuta dagozan enpresen hainbat adibide jarri ditu (Petronor, Kutxabank eta CIE Automotive), ELGAK zerga horretarako gomendatzen dauena –% 15a– baino “askoz gitxiago” ordaintzen dabelako. EH Bilduko batzarkideak zerga horretan dagoan kenkari “piloaren” analisisia be planteau dau, zerga gitxiago ordaintzeko atea dalako.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Elkarrekin Bizkaia planteamentu horren alde agertu da, eta enpresa handien kasuan ordaindu beharreko gitxieneko orokorra zerga-oinarriaren % 21ekoa eta ETE eta autonomoentzat % 18koa izatea eskatu dau. Halanda be, Batzar Nagusietako ganerako taldeek (Talde Berezia-PP Bizkaia, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) atzera bota dabe. Popularraren eretziz, EH Bilduren planteamentua “totum revolútum”-a da, eta bere helburua zergak “igotea” eta kenkari fiskalak “gitxiestea” da. Kenkari horreek “euren egitekoa beteten dabe, eta ez dau emoten egokia danik kentzea”, Ainhoa Pieló jeltzaleak esan dauenez; izan be, batzuek Batzar Nagusiek onartu ditue, ekonomiak “aurrera egiten eta hazten jarraitu daian”, eta lurraldeko ekonomiaren funtsezko beste alderdi batzuk bultzatzeko, horreen artean ingurumena, kalidadeko enpleoa edo zidarrezko ekonomia.

Aldundia eusten daben taldeek, EH Bildugaz eta Elkarrekin Bizkaiagaz batera, bertan behera itxi dabe Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak Bizkaiko produkzio-sarea babestuko dauen “plana” egiteko mozinoa. Plan horrek gastu publikoa arrazionalizetako neurriak, traba administratiboen murrizketea, zergen jaitsiera “selektiboa eta berehalakoa”, Europako funtsen birdiseinua eta jarduera ekonomikoa sustatzeko epe ertainera egin beharreko egiturazko erreformak jasoko leukez.

Victor Trimiño sozialistaren eretziz, Esther Martinez popularrak defendidu dauen planteamentuak “huts egiten dau” diagnostikoan, “beharrezkoa dalako egiturazkoa eta koiunturala danaren artean bereiztea”. EH Bilduk egin dauen moduan, horrek be “zehaztasun gehiago” eskatu dau planteautako neurrietan, eta Elkarrekin Bizkaiagaz eta jeltzaleakaz batera, “Ayuso ereduaren” kontra agertu da. Batzar Nagusien gehiengoak fiskalitate zuzena eta orekatua eregitearen aldeko apustua egin dau, aberastasuna banatzeko bide lez.

Modu berean, EH Bilduk apirilaren 27an egindako kontrol saiotik eratorritako mozinoa aurkeztu dau, Aldundiari “Ekonomia hipokarbonikorako trantsizioa egiteko politika publikoak diseinetzea eskatzeko: besteak beste daukaguzan dependentzia energetiko eta hidrikoak zelan bajatu, zelan jaitsi gure elikadura mendekotasuna, zelan sustatu mobikortasun jasangarria eta gitxiago mobidu beharra, eta lurraldea eta personak berakopletako politika publikoen sustapena zelan emon zehazteko”. Elkarrekin Bizkaiaren babesa ez da nahikoa izan ekimena aurrera aterateko, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek ez dabelako onartu. Raul Mendezen eretziz, adostasunerako bideak edegiteko ekimen “zabal eta orokorrak” Gobernu Arteko Adituen Taldeak (IPCC) Klimaren Aldaketari buruz proponiduten dituan neurriak Bizkaira ekarri gura ebazan.

**INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO AKORDIOA**



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Osoko batzarra Elkarrekin Bizkaiaren arauz besteko proposamen baten eztabaideagaz amaitu da. Proposamen horren bidez, lurraldeko udalerrietan emakumeek jasandako “Indarkeria Matxistei buruzko Azterlanak” egitea eskatzen jakon Aldundiari. Azkenik, talde horrek, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta EH Bildu taldeakaz batera, erdibideko zuzenketa-eske bat sinatu dau. Zuzenketa-eske horrek, “Indarkeria Matxistaren Behatokiaren garapenean eta aurrerapenean lanean jarraitzera” bultzatzen dau Aldundia, “aurrera eroaten dituan politikak sendotzeko eta indartzeko, desbardintasunaren kontrako eta indarkeria matxista desagerrarazoteko burrukan tresna eraginkorra izateko helburuz”. Elkarrekin Bizkaiako Eva Cabornerok laburbildu dauenez, akordioa, arlo horretan egiten ari diran lana eta informazioa “eguneratzeko” beharretik sortu da.

Bizkaiko parlamentuko batzarkide guztiek onartutako zuzenketa-eske horren bidez, osoko batzarrak Behatokiak egindako argitalpenak, txostenak eta analisiak “ikusarazoteko eta zabaltzeko” eskatzen deutso Aldundiari. Ganera, orain dala urte bi adostutakoaren ildotik lan egiten jarraitzeko be eskatu deutso Aldundiari Bizkaiko parlamentuak, Aldundiaren, Bizkaiko udalerrien eta arlo horretan eskumenak dituen udalaz gaindiko erakundeen arteko koordinazioa bermatzeko, bai eta biktimei eta indarkeria matxistaren ingurunean bizi diran erasotzaileei buruzko azterketa-profilak zabaltzen eta eguneratzen jarraitzeko be.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **EL PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA APRUEBA UN PAQUETE DE MEDIDAS FISCALES PARA MITIGAR LAS CONSECUENCIAS DE LA CRISIS ENERGÉTICA**

- **El Parlamento de Bizkaia da vía libre al aplazamiento sin garantías ni intereses en el pago de impuestos; a la exención del pago fraccionado de IRPF; y al incremento del forfait de compensación de gastos para microempresas y trabajadores autónomos, con especial intensidad para los sectores del transporte de mercancías por carretera, agrícola y ganadero.**
- **Todos los grupos junteros se muestran abiertos a recuperar la bonificación en el IBI para familias numerosas, eliminado en 2016.**
- **El pleno aprueba por unanimidad una enmienda transaccional para que se refuercen las políticas de lucha contra la desigualdad y la erradicación de la violencia machista.**

(Gernika, a 18 de mayo de 2022). El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado hoy, en un pleno ordinario celebrado en Gernika, un paquete de medidas tributarias urgentes derivadas de la crisis energética. Con el Decreto foral Normativo 2/2022, de 5 de abril, ratificado por la Cámara vizcaína por 36 votos a favor y 13 abstenciones, la Diputación pretende “mitigar”, a través de distintas medidas fiscales, las consecuencias derivadas de esta crisis.

Así, el decreto de urgencia, aprobado por lectura única, establece un aplazamiento excepcional de las deudas tributarias cuyo plazo de presentación e ingreso finalice entre el 1 de abril y el 31 de julio de 2022. Esta medida afectará a personas físicas con actividades económicas, microempresas y pequeñas empresas, y algunas cooperativas. El ingreso de las deudas aplazadas se suspenderá durante un período de tres meses.

Asimismo, la Diputación establece, según ha transmitido el diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarizaga, medidas extraordinarias para la determinación del rendimiento neto en la modalidad simplificada del método de estimación directa en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Se eleva el porcentaje general del 10



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

al 15%, y hasta el 70% para las actividades agrícolas, ganaderas y transporte de mercancías por carretera.

En otros artículos del decreto se establece, por un lado, que los y las contribuyentes que ejerzan actividades económicas, no estarán obligados a autoliquidar e ingresar en la Hacienda Foral de Bizkaia los pagos fraccionados correspondientes al primer y segundo trimestre de 2022 del IRPF. Y las microempresas podrán considerar como gasto deducible un importe equivalente al 15% -se eleva en 5 puntos- de su base imponible positiva en concepto de compensación tributaria.

En relación a estas medidas, algunos grupos han denunciado que la Diputación se queda “escasa” debido a la gravedad del momento. Es el caso del grupo Mixto-PP Bizkaia que ha pedido acciones “más contundentes” teniendo en cuenta que los problemas son “de enorme entidad”. “No están a la altura de las consecuencias que está sufriendo la ciudadanía” ha añadido la portavoz de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga, quien ha denunciado que se toman medidas “para una parte” de la ciudadanía. Para EH Bildu, las medidas aprobadas son “necesarias, pero no suficientes”. Se mueven en el “corto plazo, pero esta crisis requiere de medidas de fondo” que hagan frente a problemas “estructurales”, ha dicho Arantza Urkaregi, quien ha planteado que el decreto sea tramitado como norma foral para abrir una ventana a la aportación de los grupos, algo que ha rechazado el pleno en otra votación.

En el otro extremo se han situado los grupos que apoyan al Gobierno foral. José Alberto Álvarez Castrejón, juntero de Socialistas Vascos, ha admitido que siempre “se puede hacer más” pero que las medidas planteadas son “pequeñas dosis de ayudas” que sacan de “algún apuro” económico a contribuyentes autónomos y pymes. En esta línea, el jeltzale Oscar Arana ha enfatizado que son medidas “para cada momento”, acciones “a medida de la evolución de la crisis económica”.

## BONIFICACIONES DE HASTA EL 90% EN EL IBI A FAMILIAS NUMEROSAS

El pleno ha rechazado la toma en consideración de una proposición de Norma presentada por el grupo Mixto-PP Bizkaia para recuperar las bonificaciones en el IBI a las familias numerosas, algo que fue eliminado tras la aprobación de la Norma Foral 4/2016, de 18 de mayo, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y que se mantienen en Araba y Gipuzkoa. Esta iniciativa pretende corregir el “maltrato injustificado” de los grupos que sustentan al Gobierno foral, mediante una bonificación de hasta un 90% para esas “15.165” familias numerosas que existen en Bizkaia.

La iniciativa ha decaído por 32 votos en contra (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos), 10 votos a favor (EH Bildu y grupo Mixto-PP) y 6 abstenciones (Elkarrekin



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Bizkaia). El debate ha repetido los argumentos que ya se ofrecieron hace seis años. Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu se han mostrado a favor de las bonificaciones pero teniendo en cuenta la renta familiar y las distintas tipologías de familias. No comulgan con que sea una aplicación “general”.

Pese al rechazo de la iniciativa de los populares, los grupos que apoyan al Gobierno foral han planteado un camino “más corto” para recuperar esta bonificación. El portavoz socialista Juan Otermin y el jeltzale Unai Lerma han anunciado que la Diputación abrió ayer una posibilidad tras la aprobación en Consejo de Gobierno de nuevas medidas fiscales en las se incluye una modificación del artículo 10 de la actual norma foral con una bonificación que alcanzaría el porcentaje propuesto por los populares, pero acortando plazos para que los ayuntamientos lo tengan listo antes de que finalice el ejercicio. “Para el mes de octubre llegamos seguro”, ha dicho Lerma, tras las dudas esgrimidas por los grupos de la oposición para que los ayuntamientos tuvieran ya en otoño esta rebaja impositiva acordada y aprobada en las Juntas Generales.

#### MOCIONES RECHAZADAS: CLÁUSULAS SOCIALES, GRAVAMEN MÍNIMO EN SOCIEDADES, Y MEDIDAS CONTRA LA CRISIS Y EL CAMBIO CLIMÁTICO

El pleno ha debatido a continuación cuatro mociones de la oposición derivadas de otras tantas interpelaciones, que han sido rechazadas por los grupos Nationalistas Vascos y Socialistas Vascos.

El grupo juntero Elkarrekin Bizkaia ha planteado, con el apoyo de EH Bildu, que la Diputación “rompa” los contratos con aquellas entidades que empleen voluntariado con fines lucrativos, y desarrolle su propia Estrategia de Seguridad y Salud en el Trabajo y la adaptación de su modelo de cláusulas sociales u medioambientales a convenios de colaboración y subvenciones.

Los grupos que apoyan al Gobierno foral han repetido que lo que se plantea ya “viene siendo desarrollado” por la Diputación, que dispone de mecanismos de control del cumplimiento de la cláusulas sociales, resumido en los mismos pliegos de cláusulas administrativas de cada concurso que obliga a los contratados a cumplir los derechos laborales o las retribuciones del personal según convenio. El no de jeltzales y socialistas viene motivado por que la Diputación ya establece un seguimiento “doble” de estas cláusulas, el que realiza cada departamento foral y el del Servicio de Contratación, ha recordado el portavoz socialista Juan Otermin.

Asimismo, la Cámara vizcaína ha rechazado también una moción de EH Bildu para que la Diputación revise el tipo mínimo a pagar en el Impuesto sobre Sociedades, utilizando como referencia el resultado contable y no la base imponible como ocurre ahora en





BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Bizkaia. Arantza Urkaregi ha puesto varios ejemplos de empresas asentadas en el territorio (Petronor, Kutxabank y CIE Automotive) que pagan “mucho menos” de lo que recomienda la OCDE como gravamen mínimo –el 15%- para este tributo. La juntera de EH Bildu ha planteado también un análisis de la eficacia de la “maraña” de deducciones existentes en este tributo que es una vía para pagar menos impuestos.

Este planteamiento ha sido apoyado por Elkarrekin Bizkaia, que apuesta por establecer un mínimo general del 21% de la base imponible y del 18% para pymes y autónomos. Sin embargo, ha sido rechazado por el resto de grupos de la Cámara (Mixto-PP Bizkaia, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos). Para los populares, el planteamiento de EH Bildu supone un “tótum revolútum” cuyo objetivo es “subir” los impuestos y “despreciar” las deducciones fiscales. Estas deducciones “cumplen su función y no parece adecuado suprimirlas”, ha añadido la jeltzale Ainhoa Pieló, ya que algunas han sido aprobadas por las Juntas Generales para que la economía “siga avanzando y creciendo”, y para favorecer otros aspectos clave del territorio como el medio ambiente, el empleo de calidad o la economía plateada.

Los grupos que sustentan al Gobierno foral, junto con EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, han tumbado también una moción del grupo Mixto-PP Bizkaia para elaborar un “Plan” que salvaguarde el tejido productivo de Bizkaia con medidas de racionalización del gasto público, reducción de trabas administrativas, bajada de impuestos “selectiva e inmediata”, rediseño de los fondos europeos y reformas “estructurales” a medio plazo para incentivar la actividad económica.

El planteamiento defendido por la popular Esther Martínez “falla” en el diagnóstico, según el socialista Víctor Trimiño, porque “hay que discernir entre lo que es estructural y coyuntural”. Al igual que EH Bildu, éste ha pedido “más concreción” en las medidas planteadas, y junto con Elkarrekin Bizkaia y los jeltzales, se han mostrado en contra del “modelo Ayuso” de bajar impuestos. La gran mayoría de la Cámara apuesta por construir una fiscalidad justa y equilibrada, como vehículo para redistribuir la riqueza.

Asimismo, suscitado también del pleno de control celebrado el 27 de abril, EH Bildu ha presentado una moción para instar a la Diputación a diseñar “políticas públicas de transición hacia la economía hipocarbónica” en las que se defina, entre otras cosas, la forma de rebajar las dependencias energética e hídrica, reducir la dependencia alimentaria, promover la movilidad sostenible y la necesidad de moverse menos, e impulsar políticas públicas de “reacoplamiento” del territorio y de las personas. El apoyo de Elkarrekin Bizkaia no ha servido para sacar adelante la iniciativa por el rechazo de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. La iniciativa “abierta y general” para abrir caminos de consenso, según Raúl Méndez, pretendía “aterrizar” en Bizkaia las medidas que plantea el Grupo Intergubernamental de Expertos sobre el Cambio Climático (IPCC).



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## ACUERDO CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

Por último, el pleno ha concluido con el debate de una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia para instar al Gobierno foral a la realización de “Estudios sobre las Violencias Machistas” sufridos por mujeres en los diferentes municipios del territorio. Finalmente, este grupo ha firmado, junto con Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y EH Bildu, una enmienda transaccional que empuja al Gobierno Foral a “seguir trabajando en el desarrollo y avance del Observatorio de la Violencia Machista para consolidar y reforzar las políticas que desarrolla, con el objetivo de ser un instrumento eficaz en la lucha contra la desigualdad y en la erradicación de la violencia machista”. El acuerdo nace de la necesidad de “actualizar” la información y el trabajo que se está desarrollando en este terreno, ha resumido Eva Cabornero, de Elkarrekin Bizkaia.

A través de esta enmienda, aprobada por todos los junteros y junteras del Parlamento de Bizkaia, el pleno insta a la Diputación a “visibilizar y difundir” las publicaciones, informes y análisis elaborados por este Observatorio. Además, la Cámara vizcaína pide a la Diputación que siga trabajando en la línea de lo acordado hace dos años con el objeto de garantizar la coordinación interinstitucional entre la Diputación, los municipios de Bizkaia y entidades supramunicipales con competencias en este ámbito, así como a seguir ampliando y actualizando los perfiles de estudio respecto a las víctimas y supervivientes, y sus agresores en el ámbito de la violencia machista.